



Kanalak

Kontuan izan behar da gure helburua-publikoak elikadurari garrantzia ematen dioela, diru sarrera ertainak izan behar dituztela gutxienez, etxe bat izan behar dutela eta teknologiaren jakintza minimo bat izan behar dutela.

Hasiera batean, fisikoki Euskal probintzietan dauden supermerkatuetan salduko dugu produktua. Arrakasta izaten badu Espainia osora zabalduko dugu baina on line bidez, hau da, gure web orrian eta Amazonen jende gehiagori salduko diegu. Beraz, munduko hainbat herrialdeetan eskura izango dute TMtab internet bidez, baina denda fisikoetan, hasieran, euskal probintzietan bakarrik egongo da. Gure helburu-publikoak produktua izateko, hau da, TMtab lortzeko, bi banaketa kanal mota desberdin izango dituzte: Bitarteko kanalak eta zuzenak.

- ★ Bitarteko kanala, Amazon bitartez izango da eta Amazon enpresak bere kabuz antolatuko du bidalketa. Beraiek kontratatua duten banaketa azpi-enpresak egingo du jarduera hau.
- ★ Kanal zuzenean berriz, gure web orrian, txominetamoza.es erosten dituzten TMtab guztiak, erosleek eskuratzeko, produktu hau banatzeko enpresa bat azpikontratatuko dugu. (SEUR)

Gure helburu bezeroak TMtab ezagutzeko hainbat modu izango ditu:

- ★ Euskal probintzietako supermerkatu nagusietan, hau da, Carrefour, Alcampo, Eroski eta BM postu bat jarriko dugu larunbatetan zehar eta ostiral arratsaldetan, jende gehien joaten diren egunak direlako. Jendea supermerkatuara joaterakoan gure produktuaren informazioa jaso ahal izango dute postuan eta bertan TMtab erosteko aukera izango dute.
- ★ Euskal probintzietan zehar ekitaldi batzuk egingo ditugu; Donostiako Kursalean, Bilboko Max Center zentro komertzialean eta Vitorian Boulevard zentro komertzialean. Ekitaldi horretan, Martin Berasategi eta Argiñano egongo dira. Sukaldari hauek "showcooking" bat egingo dute eta

horretarako gure produktua erabiliko dute. Ekitaldia, probintzia bakoitzeko hiruburuan dagoen udaletxeak promozionatuko du.

Produktuaren berri izateko modan dauden sare sozialetan TMtab izenarekin kontuak egingo ditugu gure produktua bultzatzeko, hau da, Instagramen, Facebook eta Twitterren. Gainera, gure empresako sare sozialetan, gure empresa eta produktuari buruzko informazioa eskeiniko dugu. Baita ere, zozketak egingo ditugu, bezeroak erakartzeko. Eta Youtuben, gure empresaren kanala izango dugu. Eta bertan, iragarkiak zintzilikatuko ditugu. Hauek denak, gure esku egongo dira, hau da guk maneiatuko ditugu.

